

GOBERNU BATZARRA

2014. 02. 21

Alkatea:

Ibai Iriarte San Vicente

Zinegotziak:

**Lore Agirre Zipitria
Asier de los Rios Soraluze
Rosa M. Urkola Irigoien**

Idazkaria:

Jose Luis Unanue Ugalde

**Kontuhartzaitzako
Beh.Beh.Teknikaria:**

Amaia Olaetxea Amonarriz

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamalauko otsailaren hogeita batean, goizeko 10:00etan Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.

1.- Aurreko akta onartzea.

2.- Galtzaundiren hitzarmena.

3.- UEMAREN 2014ko kuota.

4.- Laskorain ikastolari Kondeaneko aldapako lokalaren baimena luzatzea.

5.- EBN: 14-18 plan estrategikoa eta 2014ko kudeaketa plangintza.

6.-Tolosako Elkarte Gastronomikoen eragin herriko dinamikaren proiektua egiteko lanak kontratatzeko Baldintza Administratibo Partikularren Plegua onartzea.

7.-Klausula Administratibo partikularren agiria, Kontratatzeko, publizitadedun prozedura negoziatuaren bidez, honako zerbitzu hau: Tolosako Hiri Ordenazioko Plan Orokorraren berrikuspen partziala egiteko laguntza teknikoa, aholkularitza eta idazketa.

8.- Euskal Herria 1-B eraikinean zuzkidurako alojamenduak egiteko kontraturen 3. ziertagiria.

9.-2014/255 Alkate Dekretuaren kontu ematea.

10.- Ibilgailuen zerga: Salbuespen eskaerak.

11.- Ibilgailuen zerga: Hobarien eskaerak.

12.-Ibilgailuen zerga: Salbuespenaren deusestetze proposamenak.

13.- Ibilgailuen zerga: Hainbat eskaerak.

14.-Landa Okindegia terrazaren tasaren salbuespena.

15.- Iñauterietako jai egitaraua eta aurrekontua onartzea.

16.-Tolosako Udal Liburutegiko laguntzaileen zerbitzuan Eusko-Eki enpresari beste bi urterako luzapena egiteko proposamena.

17.- 2/2014 zenbakia duen faktura-zerrenda.

1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2014ko otsailaren 14an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

2.- Galtzaundiren hitzarmena.

Ikusiz, Hizkuntza Politika eta Hezkuntza batzordeak 2014ko otsailaren 7an egindako proposamena, Tolosan Euskararen erabileraren hainbat normalizazio-lan Galtzaundirekin lankidetzaz burutzeko 2014 urtetik 2017urtera; eta bat etorritz aipatu batzordeak egindako diktamenarekin, Udalaren eta Galtzaundi Euskara Taldearen arteko Hitzarmena sinatzeko, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.-Tolosako Udalaren eta Galtzaundi Euskara Taldearen arteko hitzarmena onartzea.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Hizkuntza Politika Hezkuntza departamentuari eta Galtzaundi taldeari.

3.- UEMAREN 2014ko kuota.

Hizkuntza Politika eta Hezkuntza batzordeak 2014ko otsailaren 7an egindako diktamenarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea Tolosako Udalarari dagokion UEMAREN aurtengo kuota (18.412€-koa).

BIGARRENA.- Ordainketa hau lau zatitan egitea, hots, lau hiruhilekotan.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Hizkuntza Politika eta Hezkuntza departamentuari eta UEMAKO arduradunari.

4.- Laskorain ikastolari Kondeaneko aldapako lokalaren baimena luzatzea.

Hizkuntza Politika eta Hezkuntza batzordeak 2014ko otsailaren 7an egindako diktamena ikusita Tolosako Udalararen eta Laskorain Ikastolaren arteko hitzarmena Kondeaneko Aldapa 20 beheko lokala Laskorain Ikastolari uzteko, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Kondeaneko Aldapa 20 beheko lokala Laskorain Ikastolari uzteko arautzen duen hitzarmena onartzea.

BIGARRENA.- Adieraztea kontratuaren iraupena 5 urtekoa izango dela 2014ko otsailaren hamalautik aurrera eta prekariozko izaera.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Hizkuntza Politika eta Hezkuntza departamentuari eta Laskorain Ikastolako arduradunari.

5.- EBPN: 14-18 plan estrategikoa eta 2014ko kudeaketa plangintza.

2014-2018ko Erakundearen Plan Estrategikoa eta 2014ko Erakundearen Kudeaketa Plangintza azaldu dira Hizkuntza Politika eta Hezkuntza batzordean.

Hizkuntza Politika eta Hezkuntza batzordeak 2014ko otsailaren 7an egindako diktamena ikusita, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez balituta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Bi plangintza horiek onartzea.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Hizkuntza Politika eta Hezkuntza departamentuko arduradunari.

6.- Tolosako Elkarte Gastronomikoen eragin herriko dinamikaren proiektua egiteko lanak kontratatzeko Baldintza Administratibo Partikularren Plegua onartzea.

Berdintasun teknikariak txostena egin du non agertzen duen ***Tolosako Elkarte Gastronomikoen eragina herriko dinamikaren*** egitasmoaren justifikazioa.

Aipameneko proiektuko lizitazio publiziterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez kontratatzeko klausula administratibo partikularren agiria prestatu da.

Beraz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea ***Tolosako Elkarte Gastronomikoen eragina herriko dinamikaren*** proiektua.

BIGARRENA.- Onartzea ***Tolosako Elkarte Gastronomikoen eragina herriko dinamikaren*** proiektuaren lizitazioa publiziterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez kontratatzeko espedientea.

HIRUGARRENA.- Onartutako proiektua gauzatzeko dagokion gastua onartzea.

LAUGARRENA.- Onartzea baldintza administratibo partikularren agiria, proiektu hori prozedura negoziatua publiziterik gabe kontratatzeko. Ezaugarri hauek izanik:

Epea: 2014ko urtarrilaren 1etik, abenduaren 31ra bitarte.

Kontratuaren gehieneko prezioa: 43.277,60 euro, (BEZa barne).

Proiektu honen ordainketa 4 fakturen bidez egingo da eta bakoitza, gehienez, 10.819,40 eurokoa (BEZa barne) izango da.

BOSGARRENA- Adjudikatzeko prozedurari hasiera ematea, dagokion gonbidapenak eginez.

7.-Klausula Administratibo partikularren agiria, kontratatzeko, publizitadedun prozedura negoziatuaren bidez, honako zerbitzu hau: Tolosako Hiri Ordenazioko Plan Orokorraren berrikuspen partziala egiteko laguntza teknikoa, aholkularitza eta idazketa.

Ikusiz, Klausula Administratibo partikularren agiria, kontratatzeko, publizitadedun prozedura negoziatuaren bidez, Tolosako Hiri Ordenazioko Plan orokorraren Berrikuspen Partziala egiteko Laguntza teknikoa, aholkularitza eta idazketa.

Kontuan hartuz, Hirigintza, Herri Azpiegiturak eta Auzoak batzordea otsailaren 14an egindako proposamena, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA- Publizitadedun prozedura negoziatuaren bidez kontratatzeko zerbitzu espediente hau onartzea: Tolosako Hiri Ordenazioko Plan Orokorraren berrikuspen partziala egiteko laguntza teknikoa, aholkularitza eta idazketa. Litzitazio-tipoa hau da:70.000,00€ (Hirurogeita hamar mila euro) BEZa barne.

BIGARRENA- 70.000,00 euroko gastua baliatzea dagokion partidaren kargura.

HIRUGARRENA- Onartzea klausula administratibo partikularren plegua, aipameneko lanak kontratatzeko.

LAUGARRENA- Adjudikatzeko prozedurari hasiera ematea eta, horretarako, litzitazioaren deia egitea Kontratatzailearen profileen.

8.- Euskal Herria 1-B eraikinean zuzkidurako alojamenduak egiteko kontraturen 3. ziurtagiria.

Bi mila hamahiruko urriaren 4an egindako bilkuran Udal Gobernu Batzarrak Lurgaien, S.A., enpresari adjudikatu zion Euskal Herria 1-B eraikinean zuzkidurako alojamenduak egiteko kontratua, 1.565.052,72 (BEZ barne) izan zelarik esleipenaren zenbatekoa.

Bi mila hamahiruko abenduaren 10ean, Obra zuzendaritzak 1. ziurtagiria aurkeztu zuen, 54.954,34 €-koa; eta aurtengo urtarrilaren 10ean, 2. ziurtagiria, 74.132,44 €-koa.

Bi mila hamalauko otsailaren 7an, Obra zuzendaritzak 3. ziurtagiria aurkeztu zuen, 112.246,15 €-koa.

Otsaileko ziurtagiria aztertuta, eta kontuan izanik Udal teknikoak oniritzia eman diola aipatutako ziurtagiriari, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

E R A B A K I D U

LEHENA.- Onartzea Euskal Herria 1-B eraikinean zuzkidurako alojamenduak egiteko kontratuaren hirugarren ziurtagiria (Lurgoien, S.A., enpresaren 005/14 fak. zkia), 112.246,15 €-koa (BEZ barne).

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Lurgoien, S.A., enpresari eta Kontuhartzaitzari.

9.- 2014/255 Alkate Dekretuaren kontu ematea.

M.K. eta **R.H.**-rei laguntza ekonomikoa ematea 2014ko otsailaren 13an onartu zitzaizen 2014/255 zenbakidun Alkatetza Dekretuaren bidez. Laguntzaren kopurua 500 €-koa zen.

Gobernu Batzarra jakinaren gainean geratu da.

10.- Ibilgailuen zerga: Salbuespen eskaerak.

Jasotako eskaerak ikusita, eta aintzat hartuta Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren uztailaren 5eko 14/1989 Foru Arauaren 2. artikulua, Zenbait zergatan aldaketa jakin batzuk sartzen dituen abenduaren 20ko 3/2010 Foru Arauak aldatua, eta Zerga arautzen duen Ordenantza Fiskala, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

A la vista de las solicitudes recibidas, y teniendo en cuenta lo establecido por el art. 2 de la Norma Foral 1/1989, de 5 de julio, del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica, modificado por la Norma Foral 3/2010, de 20 de diciembre, por la que se introducen determinadas modificaciones tributarias, y la Ordenanza Fiscal Reguladora del Impuesto, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

E R A B A K I D U

LEHENA.- Ondorengo zerrendako ezinduei, beraien izenean matrikulatutako ibilgailuengatik, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko

A C U E R D A

PRIMERO.- Conceder, con efectos a partir del 2014, la exención del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica a los minúsvalidos y por los vehículos que

zergaren salbuespena onartzea 2014 urtetik aurrera (ibilgailu horiek espedientean agertzen dira)

constan en el expediente:

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta interesatuei.

SEGUNDO.- Dar cuenta de la adopción del presente acuerdo al departamento de Intervención y a los interesados.

11.- Ibilgailuen zerga: Hobarien eskaerak.

Ibilgailuen gaineko Zerga arautzen duen Ordenantza Fiskalaren 6. artikulua zera dio:

“Ibilgailu historikoek edo fabrikazio egunetik kontatuta gutxienez hogeita bost urteko antzintasuna dutenek % 50eko hobaria izango dute zerga kuotan. Fabrikazio eguna ez bada ezagutzen, lehen matrikulazio eguna hartuko da halakotzat edo, bestela, ibilgailu mota edo aldaera fabrikatzeari utzi zitzaion eguna.”

Ibilgailuen gaineko Zerga arautzen duen Ordenantza Fiskalaren 6. artikulua xedatutakoarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

El artículo 6 de la Ordenanza Fiscal reguladora del Impuesto sobre vehículos señala lo siguiente: “Gozarán de una bonificación del 50 % de la cuota tributaria, los vehículos históricos o aquellos que tengan una antigüedad mínima de veinticinco años, contados a partir de la fecha de su fabricación o, si ésta no se conociera, tomando como tal la de su primera matriculación o, en su defecto, la fecha en que el correspondiente tipo o variante se dejó de fabricar.”

De conformidad con el art. 6 de la Ordenanza Fiscal reguladora del Impuesto sobre vehículos. La Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

ERABAKIDU

ACUERDA

LEHENA.- 2014 urtetik aurrera ondorengo ibilgailuei hobaria ematea, 2014ko urtarrilaren 1ean 25 urte baino gehiago izateagatik:

PRIMERO.- Conceder la bonificación a partir del 2014 a los siguientes vehículos ya que el 1 de enero de 2014 el vehículo tenía más de 25 años:

MATRIKULA	URTEA	HOBARIA
CC-8441-O	1987	131,95
SS-1169-W	1985	43,97
SS-7463-AU	1988	131,95

SS-9589-AB	1988	43,97
BU-4049-I	1985	43,97
BI-3317-AW	1988	73,30
CS-7483-AM	1998	102,62
SS-4229-AC	1988	37,10
C-3463-BDN	1985	5,17
SS-2762-N	1980	8,85
SS-3495-Y	1987	37,10
SS-8524-K	1978	8,85
SS-8674-AB	1988	43,97
Z-9117-AB	1988	73,30
B-7331-CW	1978	8,85
	GUZTIRA	794,92

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta interesatuei.

SEGUNDO.- Dar cuenta de la adopción del presente acuerdo al departamento de Intervención y a los interesados.

12.- Ibilgailuen zerga: Salbuespenaren deusestatze proposamenak.

Aintzat hartuta Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren ekainaren 5eko 14/1989 Foru Arauaren 2. artikulua, eta zergaren kuoten Ordenantza fiskal arautzailea, Gobernu Batzar honek, Kontuhartzaitza departamentuak egindako proposamenarekin bat etorri, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

Teniendo en cuenta lo establecido por el art. 2 de la Norma Foral 14/1989, de 5 de julio, del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica, y la Ordenanza Fiscal Reguladora de las cuotas del Impuesto, la Junta de Gobierno, de conformidad con el informe emitido por el departamento de Intervención, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

ERABAKI DU

ACUERDA

LEHENA.-Deuseztatzea ondorengo ibilgailuen salbuespena titularraren heriotzagatik:

B-H.J.G. matrícula 1013-GSW
C.G.L.M. matrícula 6557-GWX
G.A.F. matrícula 1975-DRJ

PRIMERO.- Anular, por fallecimiento de sus titulares, la exención del impuesto de los siguientes vehículos:

B-H.J.G. matrícula 1013-GSW
C.G.L.M. matrícula 6557-GWX
G.A.F. matrícula 1975-DRJ

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitza departamentuari eta interesatuei.

SEGUNDO.- Dar cuenta de la adopción del presente acuerdo al departamento de intervención y a los interesados.

13.- Ibilgailuen zerga: Hainbat eskaerak.

J.A.G.O.ren eskaera

J. A. G. O.-k Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko Zergaren salbuespena eskatu du minusbaliotasunagatik.

Aintzat hartuta Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko Zergaren, uztailaren 5eko, 14/1989 Foru Arauaren 2. artikulua, Zenbait zergatan aldaketa jakin batzuk sartzen dituen abenduaren 20ko 3/2010 Foru Arauak aldatuta, eta Zerga arautzen duen Ordenantza Fiskala: “... salbuetsita daude 14 zaldi fiskaletik beherako ibilgailuak, baldin eta desgaituen izenean matrikulatuta egonik beraiek ez beste inork erabiltzeko badira... Aipatutako pertsonak mugikortasun murriztuko A egoeran badaude 1971/1999 Errege Dekretuak 3. eranskinean jasotzen duen baremoaren arabera, 14 zaldi fiskaleko muga ez zaie aplikatuko.”

Eta ikusiz, kasu honetan, 5963-DSG ibilgailuak 14 zaldi fiskal baino gehiago dituela eta ez dagoela mugikortasun murriztuko A egoeran.

Gobernu Batzar honek, Kontuhar-tzailletza departamentuko teknika-riak egin duen txostenarekin bat etorri, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

J. A. G. O. ha solicitado la exención en el Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica por motivo de minusvalía.

Teniendo en cuenta lo establecido por el art. 2 de la Norma Foral 14/1989, de 5 de julio, del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica, modificado por la Norma Foral 3/2010, de 20 de diciembre, por la que se introducen determinadas modificaciones tributarias, y la Ordenanza Fiscal Reguladora del Impuesto: “...están exentos los vehículos de menos de 14 caballos fiscales, matriculados a nombre de personas con discapacidad para su uso exclusivo...A las personas que se encuentren en situación carencial de movilidad reducida calificada con la letra A en el baremo que figura como Anexo 3 del mencionado Real Decreto 1971/1999, no les será de aplicación el límite de 14 caballos fiscales.”

Teniendo en cuenta que en este caso, el vehículo 5963-DSG tiene más de 14 caballos fiscales y no se encuentra en situación carencial de movilidad reducida calificada con la letra A.

La Junta de Gobierno, de conformidad con la propuesta emitida por el departamento de Intervención, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

ERABAKI DU

LEHENA.- Ukatzea **J. A. G. O.**ri matrikulatutako 5963-DSG ibilgailuaren Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko zergan salbuespena lehen adierazitako arrazoiengatik.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitza departamentuari eta interesatuari.

ACUERDA

PRIMERO.- Denegar la exención del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica al vehículo 5963-DSG, matriculado a nombre de **J. A. G. O.** en base a lo expuesto en la parte expositiva del presente acuerdo..

SEGUNDO.- Dar cuenta de la adopción del presente acuerdo al departamento de Intervención y al interesado.

.....

J.L.M.ren eskaera

J. L. M.k Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko Zergaren salbuespena eskatu du minusbaliotasunagatik.

Aintzat hartuta Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko Zergaren, uztailaren 5eko, 14/1989 Foru Arauaren 2. artikulua, Zenbait zergatan aldaketa jakin batzuk sartzen dituen abenduaren 20ko 3/2010 Foru Arauak aldatuta, eta Zerga arautzen duen Ordenantza Fiskala:

"...honetan xedatutakoaren ondorioetarako, honako hauek hartuko dira pertsona desgaitutzat: Minusbaliotasun maila 100eko 33koa edo handiagoa eta 100eko 65ekoa baino txikiagoa duten pertsonak, mugikortasun murriztuko egoeran badaude. Mugikortasun murriztua dutela ulertuko da abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuak, minusbaliotasun maila aitortu, ezarri eta kalifikatzeko prozedurari buruzkoak, III.

J. L. M. ha solicitado la exención en el Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica por motivo de minusvalía.

Teniendo en cuenta lo establecido por el art. 2 de la Norma Foral 14/1989, de 5 de julio, del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica, modificado por la Norma Foral 3/2010, de 20 de diciembre, por la que se introducen determinadas modificaciones tributarias, y la Ordenanza Fiscal Reguladora del Impuesto: *"...a estos efectos se considerarán personas con discapacidad aquellas personas que tengan reconocido un grado de minusvalía igual o superior al 33 por 100 e inferior al 65 por 100 que se encuentren en estado carencial de movilidad reducida, entendiéndose por tales las incluidas en alguna de las situaciones descritas en las letras A, B o C del baremo que figura como Anexo III del Real Decreto 1971/1999, de 23 de diciembre, de procedimiento para el reconocimiento, declaración o calificación del grado de minusvalía o*

eranskinean jasotzen duen baremoaren A, B edo C letretako egoeretan sartuta daudenean edo baremo horren D, E, F, G edo H letretan 7 puntu edo gehiago lortzen dituztenean.”

Kasu honetan, eskatzaileak ez ditu betetzen hemen xedatutakoaren ondorioetarako pertsona desgaitua kontsideratzeko baldintzak.

Horregatik, Gobernu Batzar honek Kontuhartzailza departamentuko teknikariak egin duen txostenarekin bat etorri, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Ukatzea **J. L. M.**ri matrikulatutako 0997-HCR ibilgailuaren Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko zergaren salbuespena lehen adierazitako arrazoiengatik.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailtza departamentuari eta interesatuari

que obtengan 7 o más puntos en las letras D, E, F, G o H del citado baremo.”

En este caso, el solicitante no cumple los requisitos para considerarla persona con discapacidad a estos efectos.

Por todo ello la Junta de Gobierno, de conformidad con la propuesta emitida por la técnica del departamento de Intervención, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

ACUERDA

PRIMERO.- Denegar la exención del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica al vehículo 0997-HCR, matriculado a nombre de **J. L. M.** en base a lo expuesto en la parte expositiva del presente acuerdo.

SEGUNDO.- Dar cuenta de la adopción del presente acuerdo al departamento de Intervención y al interesado.

.....

A.I.E.ren eskaera

A.I.E.k Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko zergan salbuespena eskatu du minusbaliotasunagatik, 1714-HTM ibilgailuarentzat.

Aintzat hartuta Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko zergaren

A.I.E. ha solicitado la exención en el impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica al vehículo 1714-HTM, por motivo de minusvalía.

Teniendo en cuenta lo establecido por el art. 2 de la Norma Foral 14/1989, de

ekainaren 5eko 14/1989 Foru Arauaren 2. artikulua, eta zergaren kuoten ordenantza fiskal arautzailea,

Gobernu Batzar honek, Kontuhartzailtza departamentuko teknikariak egin duen txostenarekin bat etorri, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

5 de julio, del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica, y la Ordenanza Fiscal Reguladora de las cuotas del Impuesto,

La Junta de Gobierno, en base al informe emitido por la técnica de Intervención, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

E R A B A K I D U

LEHENA.- Salbuespena ematea 2014ko ekitalditik **A.I.E.**ren izenean matrikulatutako 1714-HTM ibilgailuari Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko zerga.

BIGARRENA.- Adieraztea emakida berriak deuseztatu egingo duela 2014an 4150-BRB matrikula duen ibilgailuaren salbuespena.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailtza departamentuari eta interesatuari.

A C U E R D A

PRIMERO.- Conceder la exención del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica al vehículo 1714-HTM, matriculado a nombre de **A.I.E.** con efectos a partir del período impositivo del año 2014.

SEGUNDO.- Comunicar que la nueva concesión dará lugar a la anulación de la exención del vehículo matrícula 4150-BRB el año 2014.

TERCERO.- Dar cuenta de la adopción del presente acuerdo al departamento de Intervención y a la interesada.

14.- Landa Okindegia terrazaren tasaren salbuespena.

M. A. M. Z.-k, Landa Okindegia S.L.ren izenean, Larramendi auzoan 2013 urtean terraza ezartzeagatik ordaindu beharreko tasaren ordainketan salbuestea eskatu du.

Idatzian azaltzen duenez, 2013 urtean zehar, Larramendi auzoan izan diren lanak direla eta, ezin izan dute mahaiak kanpoan jartzeko eskubidea erabili. Lan horien erruz, zailtasun ekonomiko handiak bizitu dira enpresan, dendako sarbideta eta bertako erosotasuna erabat kalteturik suertatu direlako soinua, hautsa, zikinkeria etab-en erruz. Obrengatik jasandako kalteak direla eta, terrazak ezartzeagatik ordaindu beharreko tasan salbuestea eskatzen du edo beste mota bateko konpentsazio ekonomikoa.

Tolosako Udalak, Ordenantza Fiskaletako 2.2.5. eranskinean, udaleko bide publikoetako lurzoru, lurgain eta lurrazpiaren eta gainerako lursail publikoen erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu bereziarengatik tasa kobratzea aurreikusten du. Espedientean, terraza bide publikoan ezartzeagatik ordain beharreko tasa azaltzen da. Espediente honetako

aplikazio arauetan, ez da azaltzen inongo hobari edo salbuespenik. Terraza ezartzea, ostatariak erabakitako borondatezko ekintza da, bere ordainketan salbuespenik ez duena.

Esan beharra dago 2009. urtetik aurrera Ordenantza Fiskalak aldaketa bat jasan duela puntu honetan. Horrela, ostatariak bide publikoa erabili ahal izango dute terrazak ezartzea errentagarria zaien hilabeteetan bakarrik eta, ez, beste urteetan bezala, denboraldika.

Honela, ostatariak faktore askoren arabera erabakiko du ze hilabeteetan ezarri nahi duen terraza. Faktore hauen artean daude klimatologia, obrak,...Okindegi honen kasuan, urte osorako baimena eskatu zuen.

Beraz, aipatutakoan oinarrituz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

E R A B A K I D U

LEHENA.- Landa Okindegia S.L.-ri terrazekin bide publikoa okupatzeagatik ordaindu beharreko tasa ez salbuestea.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea kontuhartzailletza departamentuari eta interesatuari.

15.- Inauterietako jai egitaraua eta aurrekontua onartzea.

Festa batzordeak proposatuta, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

E R A B A K I D U

LEHENA.- Onartzea Inauterietako behin betiko egitaraua eta gauzatu ahal izateko beharrezkoa den 209.942 euroko aurrekontua.

BIGARREN.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailetzari eta Festa arduradunari.

16.- Tolosako Udal Liburutegiko laguntzaileen zerbitzuan Eusko-Eki enpresari beste bi urterako luzapena egiteko proposamena.

Bi mila hamabiko martxoaren 1ean **Eusko-Eki,S.L.**, enpresarekin honako kontratua sinatu zen: Liburutegiko laguntzaileen zerbitzua eskaintzekoa.

Kontratuaren epea bi urtekoa zen, Gobernu Batzarraren erabakiz, beste bi urtez luzatzeko aukerarekin.

Kontutan izanik Kultura teknikariak egindako proposamena, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- **Eusko Eki, S.L.**, enpresarekin 2012ko martxoaren 1ean sinatutako kontratua luzatzea. Kontratu honen helburua liburutegiko laguntzaileen zerbitzua eskaintzea da.

BIGARRENA.- Luzapen honen epea bi urtetan finkatzea.

HIRUGARRENA.- Luzapen honetako 2012ko kontratuaren baldintza berak ezartzea.

LAUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Kulturako arduradunari eta **Eusko Eki** enpresari.

17.- 2/2014 zenbakia duen faktura-zerrenda.

Kontuhartzaitzak **2/2014** faktura zerrenda aurkeztu du; **41.339,67** €-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- **2/2014** faktura zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 13:15etan.

ALKATEA

IDAZKARIA